

1. HERRITARRON ESKUBIDEA

(145')

Helburuak:

- Justiziaren bidegabekeriaren eta hutsegitearen aurrean ditugun eskubide eta aukerak aztertzea.
- Herritarren eskubideen gaineko azalpenak ulertzea.
- Babes juridikoa eraginkorra zer den ulertu eta eztabaidatzea.

Zertan den:

Unitate honetan herritarrek justiziaren aurrean dituzten eskubideez jardungo dute ikasleek. Lehen atalean, eskubideak bermatzeko figura juridikoak identifikatzeaz gain, entzundako gertakari batean zerk hutsegina duen erabakitzen saiatuko dira. Bigarren atalean, berriz, eskubideen gaineko hainbat testu zehaztasunez ulertu eta oinarritzko eskubideen zerrenda bateratu behar dute. Hirugarrenean, azkenik, babes juridikoa eraginkorrari buruz herritarrek izan ditzaketen zalantzez eztabaidatu egingo dute.

Prozedura:

1

Eskubidearen bermeak

Atazaurrea: testu batean herritarrentzako bermeak identifikatu (15')

- Ikasleek liburuan Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua dute. Bertan herritarrek zor duten tratua bermatzeko hainbat figura juridiko aipatzen dira. Artikulua irakurri ondoren, binaka jarrita, eskubide horiek azpimarratu eta gaztelaniaz idatziko dituzte.

Zuzenketa-orria

24. artikulua.

- 1.- Gizabanako guztiek eskubidea dute, beraiei dagozkien eskubide eta interes legitimoak egikaritzean, epaile eta auzitegien babes eragingarria lortzeko, eta ezin daiteke inoiz babes-gabeziarik gerta.
- 2.- Halaber, guztiek dute eskubidea, legeak lehendik izendaturiko epaile arrunta izateko, abokatuaren defentsa eta laguntza izateko, haien aurkako akusazioaren argibideak jasotzeko, jendaurreko prozesua bidegabeko atzerapenik gabe eta berme guztiekin burutzeko, euren buruen babeserako egoki diren frogabideak erabiltzeko, beren buruen aurka adierazpenik ez egiteko, errudun direla ez aitortzeko, eta errugabetasun-presuntzioa izateko.

Legeak arautuko du senidetasunarengatik edo lanbide-sekretuarengatik zein kasutan ez dagoen betebeharririk, ustez delitu diren egitatei buruz adierazpenak egiteko.

Artículo 24

1. Todas las personas tienen derecho a obtener la tutela efectiva de los jueces y tribunales en el ejercicio de sus derechos e intereses legítimos, sin que, en ningún caso, pueda producirse indefensión
2. Asimismo, todos tienen derecho al Juez ordinario predeterminado por la ley, a la defensa y a la asistencia de letrado, a ser informados de la acusación formulada contra ellos, a un proceso público sin dilaciones indebidas y con todas las garantías, a utilizar los medios de prueba pertinentes para su defensa, a no declarar contra sí mismos, a no confesarse culpables y a la presunción de inocencia
La ley regulará los casos en que, por razón de parentesco o de secreto profesional, no se estará obligado a declarar sobre hechos presuntamente delictivos.

Ataza: irratiko solasaldia entzun, baloratu eta gertakariaren kronika osatu (25')

- Irratiko pasarte¹ (**CDaren 1go pista**) arretaz entzun eta, liburuko galderak abiapuntu hartuta, beraien iritzia eman behar dute.

Ikaslearen liburua

1. Nola hil zituzten haurrak?
2. Nori leporatu zioten hilketa?
3. Nolakoa zen poliziek atxilotu zutena?
4. Lehen epaiketan zertara behartu zuten?
5. Urteak pasa eta gero nork onartu du krimena?
6. Libre gelditu den gizonak zer desiratzen du?

Feedbacka: informazioa trukatu eta ordenatu (10')

- Binaka jarrita, lortutako informazioa eskainiko diote elkarri.

Zuzenketa-orria

1. Harrika.
2. Hamasei urteko mutil bati.
3. Herriko gizajoa.
4. Erruduntasunera aitortzera.
5. Seriezko hiltzaile batek
6. Lasa eta bakean bizi nahi du.

Atazaostea (10')

- Ikasleek, entzundakoa gogoan dutela, ondoko alderdiez hitz egingo dute beren artean:

Ikaslearen liburua

- Lehentxeago aipatu ditugun figura juridikoetatik zeinek egin ote du huts gertatu dena gertatzeko?
- Justizia Administrazioaren jokabidea egokia iruditzen al zaizu?
- Kalte-ordaina merezi duela uste izatekotan, zer-nolako kalte-ordaina proposatuko zenuke?

Zuzenketa-orria

Prozesu honetan agerikoa dira "erruduntasun presuntzioa" eta "norberaren buruaren aurka ez deklaratzeko eskubidea"; "epailearen inpartzialtasuna" ere zalantzan jar liteke. "Bidegabeko atzerapena" egon da azken epaia erabakitzean (15 urte). Edonola ere, aipagarria da, beharbada, sistema judizialak kasua berrikusteko egin duen ahalegina.

2

Gida arakatzen

Eusko Jaurlaritzako JustiziaNet web gunean jarritako *Eskubide eta betebeharren gida* izango dute ikasleek ataza honetan hipside.

Atazaurrea (10')

- Gidatik ateratako hainbat hitz eta esapide dituzte euren liburuan: euskaraz eta gaztelaniaz. Horiek egoki lotzea da ikasleen eginkizuna.

Zuzenketa-orria

kalte eta galerak	daños y perjuicios
-------------------	--------------------

¹ SANCHEZ, V: *Errugabea*, (DB 2712), Euskadi Irratia, Goizean behin, 2002.

kaltetua	damnificado, perjudicado
laidotua	ofendido
defentsa gabezia	indefensión
atzerapenik gabe	sin demora
arrazoizko epeak	plazos razonables
letraduna	letrado
bermea	garantía
frogabidea	proceso probatorio
agerpena	comparecencia
izapideak	trámites
errudun aitortu	confesarse culpable
horretarako izendatua	nombrado al efecto
-en esku jarri	dejar a disposición de
erantzukizuna galdatu	reclamar responsabilidades
ordezkatu	representar

Ataza: eskubide deskribapen zatituak lotu (25')

- Ikasleak hutsuneak betetzen saiatuko dira, alegia, herritarrek nori eska diezaioketen erantzukizuna, Administrazioak kaltetuta izan direnean.
- Herritarren hainbat eskubideren azalpenak zatituta daude ikaslearen taulan: erdia ezkerrean eta beste erdia eskuinean. Biak lotzen ahaleginduko dira.

Feedbacka (10')

- Binaka jarriko dira, egindakoaren berri elkarri eman diezaioten.

Zuzenketa-orria

1. Herritarrek eskubidea dute **epaile eta magistratuei** erantzukizun penala eskatzeko beren eginkizunetan egindako delitu edo faltak direla eta. Horretarako, kaltetuak edo ofendituak kereila aurkeztu behar du, edo, bestela, herri-akzioa egikaritu.
2. Laidotuak izan diren herritarrek **epaile eta magistratuen** diziplinazko erantzukizuna galdatzeko egoki den espedientea irekitzea eska dezakete.
3. Herritar kaltetuek eskubidea izango dute, egoki den prozesuaren bidez **epaile eta magistratuei** erantzukizun zibilaren ondoriozko kalteen ordaina Estatuari erreklamatzeko
4. Kaltetuek, hartarako egoki den prozesuan, oker **judizial**engatik edo Justizia Administrazioaren funtzionatzeko modu **anormala**rengatik eragindako kalte eta galeren ordaina erreklamatu ahal izango dute

1	Herritarrek <i>Habeas corpus</i> prozedurarako eskubidea du,	esaterako, atxilotuak lekualdatzea, defentsarako arrazoizko epeak ematea, zitazioa denborarekin egitea, etab.	A
2	Herritarrek eskubidea dute edozein unetan izapideak zein egoeratan dauden jakiteko eta izapide horien dokumentuen kopiak lortzeko,	bai organo judizialen aldetik eta bai bertan lan egiten dutenen aldetik ere.	B
3	Herritarrek eskubidea du berarentzat eta abokatuarentzat defentsarako beharrezkoak diren erraztasunak eskuratzeko,	defentsa-gabeziarik sor ez dadin.	C
4	Akusatuak zigor-arloko prozesuetan azken hitza esateko eskubidea du,	legearen aurka atxilotua izanez gero, berehala agintari judizialen esku jartzekoa.	D
5	Herritarrek errespetu eta begirunearekin tratatuak izateko eskubidea dute,	baldin eta prozesu horretan interes legitimoa badaukate eta Legeak ezarritako mugen barruan	E

1	2	3	4	5
D	E	A	C	B

- Hasieran aztertu duten hitz eta esapideen zerrenda amaitzeke badute, orain da taulara itzultzeko garaia.

3

Ulertzeko moduan

Atazaurrea: emandako hitzen euskarazko baliokideak bilatu (10')

- Berriro ere komeni zaie lexikoa lantzea, hurrengo eginkizunerako beharrezkoa izango baita. Bakoitzaren baliokidea aurkitu beharko dute.

Zuzenketa-orria	
derecho a acceder a los tribunales	auzitegietara jotzeko eskubidea
alegar y probar	alegazioak egin eta frogak aurkeztu
decidir de forma motivada y razonable	erabaki oinarritua eta arrazoitua hartu
hacer cumplir las decisiones	erabakiak betearazi
dilaciones indebidas	bidegabeko atzerapenak
proceso con garantías	berme guztiak dituen prozesua
convencimiento de la culpabilidad	Ziur egon erruduntasunaz
medidas previas	aurretiazko neurriak
presunción de inocencia	errugabetasun presuntzioa
reconocer los hechos	egitateak aitortu
medios de prueba	frogabideak
acusaciones sorpresivas	ustekabeko akusazioak

- Egindako aukera alboko ikaskidearekin egiaztatzea komeni zaie.

Atazaurrea: zenbait galderari dagozkion erantzunak bilatu (20')

- Ikaslearen liburuxkan babes judizialaren inguruan sortu ohi diren galderak daude eta, beherago, galderei dagozkien erantzunak nahastuta (**I. eranskina**). Taldeka jarrita, galderak eta erantzunak lotzen saiatuko dira.

Feedbacka (10')

- Talde bakoitzak egindako aukera ikastaldearen aurrean azalduko du.

Zuzenketa-orria								
1	2	3	4	5	6	7	8	9
C	I	G	B	H	B	F	D	A

TRANSKRIPZIOAK

CDaren 1go pista²

Iraupena: 4' 19''

Esataria: Hamaikak eta hogeita bost, European segi behar dugu.

Esataria2: Hamabost urte kartzelan egin ondoren, errugabetzat jo dute Patrick Dils hogeita hamar urteko gaztea, laurogeita seian bi haur hiltzea leporatu izan diote. Vanesa Sanchez, Paris, egun on!

Banesa: Kaixo, egun on!

Esataria2: Bizitzaren erdia kartzelan pasatu ondoren, kalean da orain mutil hau, ezta?

Banesa: Ba, bai, kalean, baina nola ez...?

Esataria: Kontaiguzu bere historia.

Banesa: Bueno, bere historia... Patrick Dils, zera... Frantziako ipar aldean bizi zen hamasei urteko tipo bat zen, ez? Igual, ba, epaiketek zera... erakutsi... epaiketatik atera den berari buruzko informazio guztion arabera, herriko gizagaixoa zen, ez? Eta, bueno, ba, sukaldaritza ikasketak egiten zituen eta praktikak egiten zituen eta egun batean, ba, leporatu zioten zortzi urteko bi haur hiltzea, ez? Harrikadekin eta kartzelan sartu dute, kartzelan sartu zuten eta bere bizitza erdia kartzelan pasa du, eta aste honetan aske utzi dute, ez? Justiziak... Justizia konturatu da errugabea zela, ez? Eta bera ez zela bi haur horien hiltzailea izan, baizik eta *asesino en serie* bat, oso ezagun bat hiltzaile bat, ez?

Esataria2: Sententziak polemika sortu du.

Banesa: Izugarritzko polemika, bai, bueno, *eske*, batez ere, ba... ez delako oso normala, ez? Hamabost urtetan pertsona bat kartzelan edukitzea errugabea izanda, ez? Eta, gainera, hau ez da izan bera epaitu duten lehen aldia, baizik eta hirugarrena. Hasieran jarri zioten bizitza osorako kartzela zigorra; gero, hogeita bostekoa; eta, azkenean, orain prozesu osoan berrikusi dutenean, guzti hau berriro zabaldu zen, ze polizia konturatu zen, ba... hilketa honen atzean edo hilketa horretan, bazegoela Francis Joll *asesino en serie* honen sinadura. Eta, bueno, ba, izugarritzko ikerketak egin dituzte eta abar, eta, azkenean, oso argi zegoen Patrick Dils hau kartzelan hamabost urte eman zituen tipoa, ba, guzti honen, montaje baten biktima izan zela eta, ba, oso biktima komenigarria jende askorentzat, ez? Lehenengo aldiz epaitu zutenean, berak esan zuenez, ba, behartu zutela hilketak onartzera, ez? Eta jende askori komeni zitzaion, ez?, hiltzaile bat aurkitzea, eta ba, bai, norbaiti hilketa horiek leporatu ahal izateko, zeren ez zegoen batere argi, eta orain, ba, hilketak leporatu dizkieten hiltzaileak ia onartu zuen zera... Orain egin berri duten epaiketa honetan krimenaren lekuan zegoela, eta ikusi zituela bi haurren gorpuak, eta hiltzailea baita ere. Hori da normalean berak daukan jarreretako bat, ez?, horrela hitz egiten du. Eta ez da epaitzen duten lehenengo aldia eta, gainera, ba, testiguen esan dute aurpegian odola eta abar zeukala. Ba, gauzak guztiz aldatu egin dira bat-batean eta, bueno, orain txarrena da errugabetzat edo errugabe den Patrick Dils hau... honek esan du, ba, orain bakarrik bizi nahi duela eta lasai, eta bizitza lasaia eduki nahi duela. Noski, asko kostatuko zaio, baina, ez dakit nik bizitza lasaia edukiko duen, zeren atzo kartzelatik irten zenean, ba, hainbat kazetari zeuden, hainbat jende; gero, telebistara ere eramán zuten eksklusiba batekin eta abar. Horrelakoak beti gertatzen dira.

² SANCHEZ, V.: *Errugabea*, DB 2712, Euskadi Irratia, Goizean behin, 2002.

I. eranskina

1. Zein da epaile eta auzitegien betebehar nagusia herritarren interesei begira?
2. Nola erabakitzen da zein auzitegi eta epailek hartuko duen auzi baten ardura?
3. Zein kasutan utziko da bertan behera frogaldi, bista eta agerraldien publikotasuna?
4. Zein da Administrazioaren jokabidea prozesuak bidegabeko atzerapena izan duenean?
5. Zein behar du izan epailearen jokabidea auzitan dagoen gaian inguruabar subjektiboak (ahaidetasuna, adiskidetasuna...) edota objektiboak (auzian parte hartu izana...) dituenean?
6. Frogabidea auzian dauden aldeen ardura da soi-soilik ala Justizia Administrazioak badu horretan ere zeregin eta betebeharririk?
7. Zer egiten da akusatuek defentsa egokia izan dezaten?
8. Herritar bat behartuta dago dakien guztia esatera eta aginte judizialaren eskakizun guztiak betetzera?
9. Nola bermatzen da errugabetasun presuntzioa?

A

Pertsona bati buruz hartzen diren aurretiazko neurriek arrazoizkoak izan behar dute, eraginkortasun berbera duen bete batekin ordeztu ezinezkoak eta behar bezala justifikatuak, eta ezin dira gehiegi luzatu. Frogari dagokionez, herritarrak eskubidea dauka prozesuan epaileak froga arau objektiboen arabera balora dezan. Epailea ez badago ziur norbait errudun dela, nahitaez errugabe deklaratu behar du.

B

Auzitegiek frogak onartu ez ezik, horiek egikaritzeko beharrezkoa dena ere egin behar dute. Frogabide horiek egokiak izan behar dute, hau da, zerikusia izan behar dute auzigaiarekin eta auzitegiak erabakia hartu ahal izateko baliagarriak izan behar dute.

C

Epaile eta auzitegiek aurkeztutako arazoa konpondu egin behar dute, erabaki oinarritua eta arrazoitua emanaz. Horrez gain, beren erabakiak betearazi behar dituzte; erabaki horiek gauza daitezela ziurtatu behar dute.

D

Prozesu penal edo zehatzaileetan, herritarrek eskubidea dute erantzule egin ditzaketan egitateak ez aitortzeko eta, era berean, delitu bateko partaidetza ez aitortzeko.

E

Herritarrek eskubidea dute prozesuak bidegabeko atzerapenik ez jasateko eta, horrelakorik pairatuz gero, kalte-ordaina jasotzeko.

F

Ustekabeko akusaziorik izan ez dadin eta hasiera-hasieratik defentsa egokia eta akusazioaren arabera prestatu ahal izan dadin, akusazioen berri emango zaio bere aurkako prozesuari

H

Epaileek abstenitzeko obligazioa dute, baldin eta tartean inguruabar subjektiboak (alderdiekiko ahaidetasuna, adiskidetasuna...) edo objektiboak (auzian parte hartu izana) sartzen badira. Kasu horietan, herritarrek eskubidea dute eskatzeko epaile hori auzitik kentzeko.

G

Publikotasuna bertan behera gelditu daiteke moraltasuneko edo ordena publikoko arrazoiak direla medio, bai eta Estatuko segurtasuna bermatzearren edo adingabekoen interesek nahiz alderdien bizitza pribatuaren babesak eskatzen duenean ere.

I

Irizpide nagusiak lekuarena eta auziaren gaiarena izaten dira. Zalantzak daudenean, araei begiratzen zaie auziak banatzeko.